



Jean Michel Etchecolonea

## EGOERA

Laikotasunak euskal erkidegoko proiektu juridiko eta politikoaren parte izan behar du. Hau horrela, laikotasunak kontzientzia askatasuna, eskubideen parekidetasuna eta politika publikoen unibertsaltasuna ditu oinarri.

Erakunde publikoen eta konfesio erlijioso desberdinen arteko desberdintasuna ezinbestekoa da. Horrela, erlijioa esparru pribatura mugatu beharra dago, erakundeek jendarte zibilaren interesak babestuko dituelarik sinestunen interes partikularren gainetik.

## HELBURUAK

Sistema laikoa oinarri, jendarte zibilaren interes orokorrak sinestunen interes partikularren gainetik ezarri dira. Horrela, erlijio jarduna ez da jendarte osoarengan onura duen zerbitzu publikotzat jotzen.

## NEURRIAK

- 1 LAIKOTASUNA JARDUNAREN ETA IRUDITERIAN EREDU** jendarte kohesioa eta herritar guztien interes orokorra babesteko. Laikotasunaren zutabe diren balio filosofiko, etiko, demokratiko eta zibikoek, justizia, elkarren errespetua eta askatasuna dakartza bere baitan. Horregatik erakunde publikoen jardunak bide honi eutsiko dio, herritar guztien interesak babesteko.

Konzientzia Askatasunerako Legea sortuko da.

Izaera publikoa duten eraikin eta ekitaldi guztietatik iruditeria erlijiosoa kenduko da.

Espazio publikoetan ez da izango erlijio gurtza burutzeko gunerik: ikastetxe, unibertsitate, osasun-zentro, espetxe, epaitegi eta abarretan.

Ordezkaritza publikoa mantendu bitartean, ez da parte hartuko izaera erlijiosoa duten ekitaldietan.

Edozein irudi edo iruditeria erlijiosori eskainitako ohore zibilak ezabatuko dira, atzera begirako izaerarekin.

Komunikabide publikoetan, gurtzen emisioak bertan behera utziko dira.

Blasfemia eta ustezko sentimendu erlijiosoei eragingo liekeen delituei lotzen zaien Kode Penaleko 522tik 525rako artikulua ez dira aplikatuko. Ez eta heriotza duinari eragiten dion 143 artikulua ere.

## 2

### KONFESIO ERLIJIOSOEI ETA HAUEI LOTUTAKO ELKARTEEI BIDERATUTAKO FINANTZAZIO PUBLIKOAREN DESAGERPENA

Ezin baita kontsideratu jendartea osotasunean babesteko zerbitzu publiko gisa.

Konfesio erlijioso orori eta hauei zuzenean zein zeharka bideratutako dirulaguntza publikoak bertan behera uzteko neurriak aktibatu.

Ez da lur publikorik emango ikastetxe erlijioso zein erlijio jarduerak burutzeko eraikuntzetarako.

Interes kultural zein historikoak direla eta fondo publikoekin eraberritutako ondare erlijiosoek, erabilera publikoa izango dute jasotako laguntza publikoaren arabera.

Eliza katolikoaren esku dagoen ondare historiko artistikoaren urteko erregistro publikoa irekiko da.

Interes orokorra izan dezakeen eliza katolikoaren ondarea, erabilera publikora pasa dadin, desamortizatzen hasi.

## 3

### ELIZEI ZUZENDUTAKO DISKRIMINAZIO EKONOMIKOAK BERTAN BEHERA UZTEKO NEURRIAK

49/2002 Mezenazgorako Legea bertan behera utzi, bai eta elizei zuzendutako diskriminazio positiboa sustatuko duten gainerako neurriak ere (IBla, obra eta eraikuntzen gaineko inpostua, sozietateak, transmisioak, etab).

Ogasun sailetik sustatuko da eliza katolikoak izan dituen exentzio fiskalak bertan behera uztea.

Inmatrikulazioak atzera-begirako izaeraz bertan behera uzteko neurriak aktibatu 1946-2015 urteak hartuta, eta gehiago burutu ez daitezzen bitartekoak ezarri.

## 4

### LEGEAREN AURREAN BERDINTASUNA BERMATU

Emakumeen, heteroarautik ateratzen direnen, adinez txikikoen edota etorkinen kontrako inolako indarkeria jardunbiderik ez da onartuko

Erlijio izaerako erakundeak, zuzenbide pribatuaren baitan arituko dira.

Edozein erlijio konfesioaren aurrean apostasia egin ahal izatea bermatuko da.

Adinez txikikoen kontzientzia askatasuna ematen dela bermatuko da.

Errito zibilak ospatzeko protokoloak abian ezartzea sustatuko da.

Elizen baitan indarkeria sexuala eta pederastia jasandakoei laguntzeko baliabideak ezarriko dira.

Hilerriak zibil izaerara pasatzeko neurriak hartuko dira.



## HEZKUNTZA SISTEMA OSOAN LAIKOTASUNAREN ALDEKO HAUTUA EGIN

Hezkuntza laikoa sustatuko dugu, etorkizuneko herritarren garapen pertsonala askatasun, berdintasun eta herritartasun osoen arabera garatzeko helburuarekin. Honen haritik eduki kurrikular unibertsalak sustatuko dira, izaera artistiko, zientifiko eta humanistikoarekin, eta doktrinamendu ideologiko erlijiosoetatik salbuetsita.

Hezkuntza ibilbide ofiziala laikotasunaren irizpideen arabera egiten dela bermatuko dute botere publikoek.

Ideario propioa duten ikastetxeak diruz ez laguntzeko neurri progresiboak abiatuko dira, bereziki izaera erlijioso edo genero arrazoiengatik bazterkeria burutzen badute.

Erlijio-dotrinak ez dira landuko ikastetxe publiko zein unibertsitateetan, ez eta diru publikoz lagundutako ikastetxe pribatuetan.

Erlijioaren irakaskuntza ikasketa orduetatik kanpo egongo da.

Hezkuntza kurrikulumean ez da erlijio doktrinamendurik sartuko.